

## **des.**

Mikel Telleriak, ezkutuko moduan, gure espazioan bere erakusketa/ekintzarako buruan zuen ideia azalduz igunean, ideari ongiatorria emateaz gain, Gko proiektuan, denbora batez, bare egondako nerbio zentrala ukitu zuen.

Telleriak, egun, proposatzen dituen itaunak, ezbairik gabe, mundu dinamiko bateko artearen oraina-etorkizunaren muin nagusiak dira. Aldaketa-garai batean bizi gara; guk komunikazioa eta garraioa idealizatu izanak bizitzaren erritmoa aldatu du. "Mainstream" (nagusi) ideologia bat dago; hau da, esate baterako horrek ingeleseko hitzak erabiltzea egiten du (nik egin berri dudana bezala), eta baita, elkarren artean, telefono mugikorretan idatzitako etendako hitzen bidez komunikatzea eragiten du. Homogeneizazioan oinarritutako globalizazioaren ideia bat, elkarri ulertzeko erreferentzia berak, zehazki, beharko bagenitu bezala.

Ideologia-olatu horren aurrean, ekintza-modu ezberdinak proposatzen dituzten, oro har, norbanakoek edo taldeek aurrera eramandako ekimenak daude. Oraindik ere gutxiengo bat dira; aldiz, gizartean bizitzaren aspektu guztietara iristen ari dira (zientzia, diseinua, ekologia, artea, teknologia, gastronomia...). Proposamen askok bestelako komunitateak sortzen saiatzen dira, paraleloan bizitzeko. Gko proiektua osatzen dugunontzat ordea, interesgarrienak sistemaren barruan egiteko beste moduak proposatzen dituztenak dira. Filosofia berri horren barruan, aurre egiten diogu homogenizazioari, aniztasuna murrizten saiatzen delako eta ekintza bakoitza etiketa batean sartu nahi duelako. Artea, zientzia, erlijioa?; Artista nor da?; Zientifikoa nor da, politikoa nor da, maisua nor da?. Badirudi zerbaitek banatzera behartzen gaituela, eskubideak zein erantzukizunak banatzera, alegia.

Artea dena da, denok gara artistak. Independentek gara? Agian, ez, baina elkartzen gaituzten balioak, berriz, guztientzako ongia bilatzen dute. Horrela izanik, komunitatearen etika batean, gizarte berri batera iritsiko gara; bertan, aniztasunak, bere zentzu osoan, ekimen sortzailea eta berritzailea eragingo du. Horri esker, egungo erronkei aurre egin ahalko diegu, eta baita etorkizunekoiei ere.

Kamilo Rodríguez-Beltrán.